

## UDAL INSTALAZIO BERRIAK ESTREINATUTA

### URKABUSTAIZKO UDALAK KULTUR ETXEKO ERAIKINERA ERAMAN DITU UDAL INSTALAZIOAK

Urkabustaizko Udalak Kultur Etxeko eraikineran eraman ditu udal instalazioak, lehen solairura. Irisgarritasunean, espazioen zabaltasunean, eraginkortasun energetikoan (zoru erradiatzailea, led-ak ezartzea) eta langileen eta herritarren erosotasunean irabazi du.


2021eko abenduan hasi ziren lehen solairua eraberritzeko lanak, eta 2022ko maiatzaren lehen ostiralean estreinatu zituzten instalazio berriak. Udal zerbitzu guztiak bateratuta daude egoitza berrian, baita orain arte fisikoki banatuta zegoen Gizarte Ongizate zerbitzua ere.

Udala astelehenetik ostiralera dago zabalik, 09:00etatik 14:00etara. Administrazio laguntzaile bik artatzen dituzte herritarrak. Gainera, 8 hilabetez, enplegu-programa baten bidez integratutako beste pertsona batek laguntzen die zeregin horretan. Halaber, egunero lan egiten dute, baita ere, enplegu-programa baten bidez 12 hilabetetarako kontratatutako administrazio orokorreko teknikari batek; astelehen eta ostegunetan kontabilitate-lanetan arituko den batek; udal-idazkariak; eta aguazil-langileak zerbitzu anitzetan.

Bake Epaitegiak ostiralean egoten da zabalik, herritarrei arreta eskainiz 09:00etatik 14:00etara.

Liburutegia astelehenetik ostiralera dago irekita (udan 09:30etik 14:30era, eta gainerako hilabeteetan 16:15etik 20:15era) eta liburuzain batek artatzen du.

**Gainera, Kuadrillako teknikariek honako zerbitzu hauek eskaintzen dituzte Udaletxean:**



• **Hirigintza.** .

Arkitekto batek eta arkitekto tekniko batek herritarrei aurrez aurreko edo telefono bidezko arreta eskaintzen diete astearteetan 12:00etatik 14:00etara. Gainera, beste arkitekto bat dago Udalaren enplegu-programa baten bitartez 12 hilabetez.

• **Artxiboa.**

Artxibozain bat astelehenetan..

• **Kultura.** Teknikari bat ostegun eta ostiralean.

• **Euskara.** Teknikari bat ostegunetan.

• **Ingurumena.** Teknikari bat astearteetan, 15 egunetan behin.

• **Berdintasuna.** Teknikari bat asteazkenetan, 15 egunetan behin..

• **Gizarte Zerbitzuak:** gizarte-langile bat astelehen eta ostegunetan 09:00etatik 14:00etara, eta teknikari laguntzaile bat ostegunetan 09:00etatik 14:00etara.

**¡Zuen zain gaude instalazio berrietan! Ongi etorri!**

# HOBEKUNTZA LAN UGARI UDALERRIAN

NEXT GENERATION DEIALDI BEREZIEI ESKER, OBRETARAKO OHIKOAK DIREN PROIEKTUEZ GAIN, 2023AN GARATUKO DIREN HAINBAT OBRA PROIEKTU DAUDE ABIAN.

Azken urteotan, Urkabustaizko Udala hainbat hobekuntza lan egiten dabil udalerrian, bertako biztanleen eta bisitatzen gaituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetu eta bermatu ahal izateko.

Proiektu horien artean, Izarrako Haurreskolako patioan estalki bat eraikitzea dago, haurrei batez ere, baina baita helduei ere gune ireki baina babestu bat eskaini ahal izateko, eguneroko jarduerak garatu ahal izateko, klimatologia edozein dela ere.

Beste proiektu bat Ugarte kaleko aparkalekuan dauden zaborrontziak lekualdatzea eta estaltzea da, baldintza higienikoak

hobetzen laguntzeko, bizilagunen laguntza izanez gero.

Beste ekintza bat Izarrako Herri Eskolaren birgaitze energetikoa da. Zatiarik zaharrenak (1972an eta 2003an eraikitakoak) birgaitu nahi dira, iturri berriztagarriak ezarri eta eraikinaren eraginkortasun energetikoa hobetuz.

Plaza Berriko sarbidearen ingurua berritzea ere aurreikusita dago, udal frontoiaren atzealdearen ondoan: bide publikoa zolatzea eta argiteria publikoaren eta hornidura elektrikoaren sare orokorra berritzea, besteak beste. Gainera, espazio publiko berri horrek ibilgailu elektrikoak kargatzeko bi puntu izango ditu, eta komun publiko mistoko kabina bat jarriko da leku berean.




Izarrako Herri Eskolaren birgaitze energetikoa .



Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura .



Bere kabuz garbitzen den komun publikoa



Haurreskolako patioa estaltzea.

- **Haurreskolako patioa estaltzea.**

63.000 euroko aurrekontua gehi BEZ. AFaren Garabide programa. %70eko finantzazioa. Amaiera: 2023ko martxoa.

- **Izarra Herri Eskolaren birgaitze energetikoa.**

1.658.615 euroko aurrekontua gehi BEZ. PIREP programa.

- **Edukiontzia lekualdatzea eta estaltzea.**

35.000 euroko aurrekontua gehi BEZ. Arabako Foru Aldundiaren Obra Txikien Programa. Amaiera: 2022ko abendua.

- **Plaza Barriko zoladura eta argiteria publikoa berritzea.**

137.832 euroko aurrekontua gehi BEZ. AFaren Foru Plana. Amaiera: 2023ko lehen seihilekoa.

- **Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura instalatzea.**

18.176 euroko aurrekontua gehi BEZ. Next Generation-en Moves III Plana. Amaiera: 2023ko lehen hiruhilekoa.

- **Bere kabuz garbitzen den komun publikoa jartzea.**

72.400 euroko aurrekontua gehi BEZ. AFaren Garabide programa. %70eko finantzazioa. Amaiera: 2023ko martxoa.



zaborrontziak lekualdatzea eta estaltzea.

# GORBEIALDEKO MINTZALAGUNEN TOPALEKUA IZARRAN

GORBEIALDEKO HAINBAT TXOKOTAKO MINTZALAGUN ETA GURASOLAGUNAK ELKARTU ZIREN IZARRAN, EKAINAREN 17AN

Urtean zehar bakoitza bere taldearekin euskaraz aritu ondoren, elkar ezagutzeko, elkarrekin egoteko eta elkarri hitz egin eta entzuteko aukera izan zuten, horrela.

Izarrako gurasolagunen eskutik, familiarizazio prestatutako jolasekin hasi zen eguna. Hala nahi izan zuenak (eta beroari beldurrik ez zionak) ibilaldi bat egiteko aukera ere izan zuen. Ondoren, bazkalaurretik, Triskari dantza taldekoek eta beraien gonbidatuek (Dulantziko Haize, Usurbilgo Orbeldi eta Gas-teizko Orbel taldeek) giro ederra jarri zuten frontoian.

Urkabustaizko mintzalagunek mimos prestatutako bazkaria etorri zen gero, Ostuñoko itzalpean. Eta, bazkalostean, Joxe Mendizabalen erromeriarekin lehertu zen festa, euripeko dantza eta guzti.



## JARDUERAK

### UDAKO KIROL JARDUERAK

Urkabustaizko Udalak kirol jardueren programa antolatu du udarako, uztailaren 4tik 28ra.

Honako jarduera hauek nabarmentzen dira: matro, igeriketa eta ur-jolasak, gimnasia eta patinajea.

Astelehen, astearte eta asteazkenetan, 15:00etik 15:30era, matro egin ahal izango da. Egun horietan, igeriketa eta ur jolasak ere egin ahal izango dira, 15:45etik 16:45era eta 16:45etik 17:45era. Halaber, asteazken eta ostegunetan gimnasia eskaintzen da 19:00etatik 20:00etara; ostegunetan, berriz, irrastaketa 17:00etatik 18:00etara.

Hauek dira prezioak: matro (9€), igeriketa (18€), gimnasia (12€) eta patinajea (6€).

Izena lehenbailehen eman behar da Udaletxean edo kultura@urkabustaiz.eus helbidera idatziz. Horretarako, izen-abizenak, telefono-zenbakia, jaioteguna, jarduera eta ordainagiria aurkeztu beharko dira.



## UDAKO JARDUERAK

UZTAILA 4-28

Ordua	Astirolehena	Astearte	Asteazkena	Osteguna
15:00-15:30	Matro (bestelako gurasoren batenekin)	matro	matro	
15:45-16:45	Igeriketa eta ur-jolasak 1	Igeriketa eta ur-jolasak 1	Igeriketa eta ur-jolasak 1	
16:45-17:45	Igeriketa eta ur-jolasak 2	Igeriketa eta ur-jolasak 2	Igeriketa eta ur-jolasak 2	Patinajea (17:00-18:00)
19:00-20:00			Gimnasia	Gimnasia

**IZEN EMATEA: UDALETXEAN EDO KULTURA@URKABUSTAIZ.EUS**  
AZKEN EGUNA: EKAINAK 28

**PREZIOAK:**  
MATRO: 9€  
IGERE: 18€  
GIMNASIA: 12€  
PATINAJEA: 6€

**DATUAK: IZEA, ABIZENAK, TELEFONU-ZENBAKIA, JAIOTZE DATA, DIRA, ORDAINAGIRIA, JUSTIFIKAZIOA**




## LANA

### PEOI TALDE BERRIA

Urkabustaizko Udalak aurreikusten du uztailaren erdialderako hamar pertsona gehiago arituko direla lanean peoi postuan eta beste pertsona bat talde hori koordinatu eta zuzentzen.

Izena emateko epea amaitu da, eta laster gauzatuko da talde horren kontratazioa. Talde horren egitekoa izango da udalerriko zonak egokitzea, konponketa-lan txikiak egitea, lorezaintzako eta igeltserotzako oinarritzko lanak egitea, espazio publikoak mantentzea eta natura zaintzea.

Peioen taldea koordinatzeaz arduratuko den pertsona lanaldiaren %100ean kontratatuko da sei hilabetetarako. Eta 10 peoiak ere sei hilabetetarako kontratatuko dira, baina jardunaren %70ean.

Gainera, badira aste batzuk administrazio orokorreko teknikari bat (TAG) eta Hirigintza eta Ingurumen teknikari bat (12 hilabetetarako eta %100eko dedikazioarekin) Udaletxean lanean dabilzala.



# Hemengo eta Hango Emakumeak

## IZARO LESTAYO AZKUE

(GETARIA, 1998)



Traineru estropadetako emakumezko patroia da, bi Kontxako Bandera eta bi Liga irabazi ditu besteak beste. Herriko klubean hasi zen arraunean eta 2014an Zarautz-Getariako patroia bihurtu zen. Hiru estropada irabazi zituen Gipuzkoako Ligan. 2017an San Juango Batelerek fitxatu eta bi urte egin zituen bertan, irabazi zitekeen guztia irabaziz. 2019an, Izaro Lestay ACR-1eko gizezkoen traineru bateko lehen emakume patroia izango da.

Es patrona en equipos de mujeres de las regatas de traineras, ha ganado dos Banderas de La Concha y dos Ligas, entre otras. Comenzó remando en el club local y en 2014 se convirtió en patrona del Zarautz-Getaria. En la Liga Gipuzkoana ganó tres regatas. En 2017 fichó por la Batelere de San Juan y estuvo allí dos años, ganando todo lo que se podía ganar Izaro Lestay se convertirá en 2019 en la primera mujer patrona de una trainera masculina de la ACR-1.